

BAO ETA EGOITZA ELEKTRONIKOA

BILBOKO PORTUKO AGINTARITZAREN EBAZPENA, ZEINAREN BITARTEZ ONETSI DEN BILBOKO PORTUAN ONTZIAK KONTSIGNATZEKO MERKATARITZA-ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZA BEREZIEN PLEGUAREN ALDAKETA

Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluaren 2019ko abenduaren 12ko bileran, Bilboko Portuan ontziak kontsignatzeko merkataritza-zerbitzua emateko baldintza berezien pleguari dagozkion aurrekarien berri eman da. Plegua, hain zuzen, Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluaren 2012ko urriaren 5eko ebazpenaren bitartez onetsi zen eta 2017ko abenduaren 13ko ebazpenaren bitartez aldatu zen. Horrez gain, aipatutako pleguaren aldaketa puntuala egiteko proposamenaren edukien berri eman da, Bilboko Portuan baimendutako ontzien kontsignazio-eragileen erroldan publizitate eta gardentasun gehiago gehitzeko eta gaiaren inguruko legegintzako berritasunen hobekuntza teknikoa lortzeko, bestek beste, martxoaren 8ko 131/2019 Errege Dekretuari, urriaren 1eko 39/2015 Legeari eta azaroaren 8ko 9/2017 Legeari dagokienez. Honako hauetan egin dira aldaketak: indarrean dagoen aipatutako pleguko 2, 6, 8 eta 10 kapituluak. Hori dela eta, horri jarraikiz, Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluak, 2019ko abenduaren 12an egindako bileran, hauxe ebatzi du aho batez:

1.- Bilboko Portuan ontziak kontsignatzeko merkataritza-zerbitzua emateko baldintza berezien pleguaren 2., 6., 8. eta 10. kapituluaren aldaketa onestea. Testuan egindako aldaketak erantsi dira (l. eranskina).

2.- Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Bilboko Portuko Agintaritzaren egoitza elektronikoan argitaratzea.

Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.1. artikuluko c) atalean xedatutakoari jarraikiz. Haren kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke Bilboko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluan, hilabeteko (1) epean, aipatutako legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi (2) hilabeteko epean, interesdunari ebazpen honen berri eman eta hurrengo egunetik aurrera



zenbatzen hasita, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1 m) eta 46. artikuluekin bat 8.3. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eta egokitzeak jotzen den beste errekursoren bat jartzea gorabehera.

Santurtzin, 2019ko abenduaren 12an. Lehendakaria, Ricardo Barkala Zumelzu. Idazkaria, Juan Carlos Verdeal Pinto.

I. ERANSKINA - BILBOKO PORTUAN ONTZIAK KONTSIGNATZEKO MERKATARITZA-ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZA BEREZIEN PLEGUA: 2., 6., 8. ETA 10. KAPITULUAK ALDATZEKO TESTUA

2. KAPITULUA - XEDEA

Dokumentu honen xedea da Bilboko Portuko zerbitzu-eremuaren barruan **ontziak kontsignatzeko merkataritza-zerbitzua** emateko eska daitezkeen baldintzak ezartzea.

Baldintza berezi horiek gutxiengoak dira, eta garatzen diren inguruneagatik edo jardueragatik aplikagarriak diren beste baldintza batzuei kalte egin gabe ezartzen dira, kontuan hartuta, bereziki, ontzien kontsignazio-betebeharra garatzen duen martxoaren 8ko 131/2019 Errege Dekretuan ezarritakoak, bai eta aintzat hartuta ere zerbitzua emateko baimenak ez duela titularra salbuesten beste administrazio publiko batzuek beraien eskumeneko eremuan legalki exijitzen dituzten lizentziak eta baimenak eskuratzetik eta horiek egunean izatetik.

6. KAPITULUA - SARTZEKO ARAUBIDEA

EPNZLTBREN 139.1. artikulua araberak, merkataritza zerbitzuak lehia-erregimenean emango dira eta portuko organismo publikoek zerbitzu horiek ematean ahalmena sustatzeko neurriak hartuko dituzte.

Baldintza hauen erregulazioaren helburu den zerbitzua Bilboko Portuan emateko, aurretik Bilboko Portuko Agintaritzaren baimena beharko da, eta zerbitzua bera jarraian zehazten diren baldintza berezi eta espezifikoetara egokitu beharko da. Nolanahi ere, Bilboko Portuko Agintaritzarekin portuko tasen edo tarifen ondoriozko zorrak dauzkatenek ezin izango dute izan ontziak kontsignatzeko zerbitzua emateko baimenaren titularrak.



ESKATZAILEAK BAIMENAREN AURRETIK NAHITAEZ AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Baimenaren eskatzaileak eskabidea aurkeztu beharko du, eta bertan honako dokumentazio hau jaso:

- A. **Eskatzailearen nortasunaren egiaztagiria.** Pertsona juridikoen kasuan, jarduteko gaitasuna honela egiaztatuko da: jarduera erregulatzen duten arauak jasotzen dituzten estatutuen edo fundatze ekitaldiaren, eskrituraren edo eraketa dokumentuaren bidez, eta horiek behar bezala inskribatuta egon beharko dute dagokion erregistro publikoan, pertsona motaren arabera. Banakako enpresaburuen kasuan, ezinbestekoa izango da nortasun agiri nazionalaren kopia kautoa edo arauz ordezkatzeko duenarena aurkeztea.

Espainiarrak ez diren eta Europar Batasuneko kide diren estatuetoakoak diren enpresaburuek inskripzioa egin beharko dute erregistroetan edo Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 67. eta 84. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartu duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 9. artikuluan ezarritako ziurtagiriak aurkeztu.

Europar Batasuneko kide diren estatuetoakoak ez diren atzerriko gainerako enpresek Munduko Merkataritza Antolakundearen zerbitzuen merkataritzari buruzko akordio nagusiaren esparruan hartutako Europar Batasunaren konpromisoen arabera exijitutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute, eta jarduteko gaitasuna egiaztatzeko Espainiako ordezkari diplomatiko iraunkorraren txostena beharko dute, aipatutako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 68. eta 84. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz; bestalde, elkarrekotasun probari lotuta egongo dira, aipatutako konpromisoen arabera nahitaezkoa ez bada izan ezik.

Nolanahi ere, enpresaburuek baldintza berezi hauen helburu den jarduera egiteko edo zerbitzua emateko behar den enpresa edo lanbide-gaikuntza eduki behar dute (ekonomia-jardueren gaineko zergan ontzi kontsignatario gisa alta emanda egotea eta azken ordainketaren agiria, merkataritza erregistroaren inskripzioaren ziurtagiria eta abar).

- B. **Hala badagokio, ordezkari egiaztatzen duten agiriak.** Baimen eskabidea beste baten ordezkari sinatzen edo aurkezten dutenek notario ahalorde nahikoa



aurkeztu beharko dute horretarako eta nortasun agiri nazionalaren fotokopia egiaztatua edo, hala badagokio, legez ordezkatzeko duenarena. Lizitatzailerak pertsona juridikoa bada, merkataritza erregistroan inskribatuta egon beharko du, ekintza zehatz baterako ahalorde izan ezean.

- C. **Ordezkaritza bat izendatzea Bilboko Portuan**, harremanetarako datuak barne (helbidea, telefono finkoa eta mugikorra, fax-zenbakia, posta elektronikoa eta, hala badagokio, web orrialdea), eta egoitza Bilboko Portuaren zerbitzu-eremuko edozein udalerritan eduki beharko du. Ordezkaritza horrek nahikoa eskumen izan beharko du, eta harekin egingo dira baliozki administrazio-jarduketak guztiak eta, bereziki, baldintza berezi hauetako 5. kapituluaren segurtasunaren inguruan ezarritako interes orokorreko jarduketak.
- D. **Atzerriko enpresek** edozein ordenatutako epaiketa eta auzitegitako jurisdikziorik eusteko deklarazioa aurkeztu beharko dute, zuzenean edo zeharka, emandako baimenaren ondorioz gerta daitezkeen ezbehar guztietarako, eskatzaileari behar bada dagokion atzerriko jurisdikzio foruari uko eginez, hala badagokio.
- E. **Garatu beharreko jardueraren memoria eta epea**. Zerbitzua ematea osatzen duten jardueren deskribapena egin beharko da, eta zerbitzua emateko antolaketa, bulegoak eta instalazioak adierazi, bai eta langileak eta baimenari dagokion epea ere.
- F. Era berean, eskatzaileak justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko du, zeinaren bitartez egiaztatuko duen 12. kapituluaren eskatzen den aseguru duela, edo, bestela, **aseguru-erakunde batek sinatutako konpromisoa**.
- G. **“e-puertobilbao” plataforma telematikokoan jarduteko alta eta ziurtagiria**. Horrela, plataformak ematen dituen zerbitzuak izango dira Bilboko Portuan ontzien, lurreko garraiobideen eta salgaien joan-etorriekin zerikusia duten informazio-truke guztien kudeaketarako derrigorrezkoak diren kanal telematikokoak.
- H. **Portuko Agintaritzaren jakinarazpen telematikoen zerbitzuan alta, sinadura elektronikoaren bidez**.
- I. **Berriarazo eta ardurapeko deklarazioa, baldintza berezi hauen I. eranskin gisa dagoen ereduaren arabera**.

8. KAPITULUA - BAIMEN-ESKAEREI BURUZKO EBAZPENA



Bilboko Portuko Agintaritzaren buruari dagokio, Administrazio Kontseiluak eskuordetuta, baimen-eskaerak ebaztea, bai eta aldatzea eta iraungitzea ere. Baimena emateko espedientearen ebazpena jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabete izango dira. Baimena eman dela ulertuko da, epe hori igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, portuko jabari publikoko ondasunen okupazio pribatiboa behar bada izan ezik. Baimena emateko prozedurari dagokionez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako xedapenak bete beharko dira.

Bilboko Portuko Agintaritzak ontziak kontsignatzeko jarduerak eskaintzeko emandako baimenak Bilboko Portuan baimendutako ontzien kontsignazio-eragileen erroldan sartuko dira. Errolda hori ikusgai eta kontsultagarri dago portuko erakundearen erakunde-webgunearen bitartez; hori guztia martxoaren 8ko 131/2019 Errege Dekretuaren 8. artikuluan ezarritako kontsignazio-erregistroari buruzko xedapenak gorabehera.

Jarduera edo zerbitzu bat garatzeko, portuko jabari publikoko ondasunak okupatu behar direnean, espediente bakarra izapidetuko da, eta Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluak administrazio titulu bakarra emango du, eta, horren bidez, epe bererako baimenduko da postuko herri jabariaren okupazioa eta jarduera, ebazpena emateko epea zortzi hilabetekoa izanik eta isiltasunak gutxiespena dakarrela kontuan hartuta. Era berean, Administrazio Kontseiluak baimena aldatzeko, iraungitzeko eta eskualdatzeko eskabideak ebatziko ditu, jabari publikoa okupatzeko tituluan aldaketa dakartenean, eta, bestela, aurreko paragrafoan adierazitakoa kontuan hartuta jardungo du.

Ezin izango dira baimendu, inolaz ere, Portuko Agintaritzako langileak, ez eta langileen partaidetza edo zuzeneko interesak dituzten enpresak ere.

10. KAPITULUA - ONTZI BATEN KONTSIGNAZIOARI UKO EGITEA, BERORI ORDEZKATZEA ETA LAGATZEA

Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu bateginaren 259.4. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, ontzi bateko kontsignazio-eragileak berak hala erabakita uko egiten badu, Portuko Agintaritzari eta Itsas Kapitaintzari modu fede-emailean jakinarazi beharko dio uko-egitea, eta benetan gauzatuko da agintaritza bakoitzari dagokionez, jakinarazpen egokiei dagokienez ordura arte ordaintzeke dituen zorra guzti-guztiak ordaindu ondoren.



Ontzi baten kontsignataria ordezkatzen bada edo kontsignazioa lagatzen bada, zeregina uzten duenak izango du Portuko Agintaritzari eta Itsas Kapitaintzari modu fede-emailean jakinarazteko betebeharra, eta, horrez gain, kontsignatario berriari egokituko zaio Portuko Agintaritzak eta Itsas Kapitaintzak onartu dutela jakinaraztea, martxoaren 8ko 131/2019 Errege Dekretuaren 6. artikuluan ezarritako prozedurarekin bat etorriz. Kontsignatarioaren aldaketak ondorioak izango ditu onartu dela jakinarazten den unetik, betiere, aurreko kontsignatarioak uko egin eta gero. Kontsignatarioak bere zereginak egiteari uzten dionean, Itsas Kapitaintzarekin eta Portuko Agintaritzarekin jakinarazpena egiten den unera arte ordaintzeke dituen zorrak ordaindu behar ditu.

